



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: IX Urtea 1927'ko Dagonila 104 Zenbakia :—:

Zortzigarren Agindua. Gezur-eko testigutza.

*Non falsum testimonium dices. (Matt-XX-18).
Gezur-eko jakileana eztezu egingo.*

Gezur-eko testigutza

ezur-eko testigutza egitea da, uste ez dana jakile bezala edo testigu bezala auzitegian esatea, Jaungoikoa testigutako artuz.

Gezur-esale bezala egiten du Jaungoikoa. Argatik dio berak: «Sei gauza gaitzesten ditu Jaungoikoak; gezur-eko jakile edo testigu, gezurak esaten dituenak» Prov. XVI-19). Jakile gezur-ekoaz eztezu erukitasunik izango,

baizik ordaindu eraziko diozu bizi-az-bizia, begiaz begia ta ortzaz ortza.» (Deut. XIX-21).

Jueza, onaren galtzaile bihurtzen du.

Lagunurkoari beriz galdu-azten dio bere izen ona, bere ondasunak, bere bizibidea, ta ez gutxietan bizia ere.

Susmoak egiten dituenak, eta sinistamen bidegabezkoa egiten duenak Jaunaren aurrean utsegingo du gutxiago edo geiago bere barenen, baño agirian ez dute maitetasuna ta zuzentasunik austen.



Zipla ta marmari bidegabekoak derabilzkitena beren esan txarez zuzentasuna austen dute; ta al duten eran emandako kalteak, beste esan onaz zuzendu bear dituzte.

Baño marmarlari gezuñezkoak, gezuñezko salatzaleak eta testigu edo jakile gezuñezkoak, itzuli bear diote esan gaiztoz izen onean egindako kaltea eta gañera beste edozein kalte, etofiko zitzaiera aurfetik gutxi gora-bera igaritzen ziotena.

Zortzigaren aginduak debekatzen duen bigarren gauza, gezuña

Nork berak uste eztuena, uste ba-lu bezala egitea, auxa da gezuña. Nor berak uste duena esaten ba-du, baño ez balitz ala, ori ezta gezuña. Gezuña izateko, itzein bear du, nor berak uste eztuena besteri adieraziz. Gezuña da, ba, gogoan gauza bat eta agoan beste bat idukitzea.

Gezuña sartu zaikioke lagunurkoari itzez landara, keñuz, idatziz edo eskribituz, baita ere ixiltasunez.

Gauza oietako edozein, gezuña sartzeko egitea, debekatua dago zortzigaren aginduan. Geroztik ez dan gauza, balitz bezala sinestaztea, edo dana ez dan bezala egitea, onela lagunari gezuña sartuz, pekatu da.

Gezur motak

Iru gezur mota bereizten ditugu.

Kaltezkhoa, iñori kaltea emateagatik edo eman dezaiokeela oarturik egiten dana. Onelakoa izan zan etsaiak gure lenengo gurasoai esan ziena: Sagarondo debekatutik janez geroz Jainko antzeko izango zirala agindu zienean. Aien kaltea bilatzen bai-zuen gezur afekin.


Axekazkoa edo *narizkakoa*, pafa egiteko edo eraginarazteko, iñoren kalterik gabe esaten danean. Onelakoa da Akino'ar Tomas deunari bere afebak esan ziona, idi bat egan zijoala, esan zionekoa.

Iñoren onezkhoa, gezuña dionaren edo beste norbaiten onez eta iñoren kalterik gabe esaten danekoa.

Euskaldun-bat, unai erdaldun batek egurgiten afapatu zuen, zilegi-etzuen basoan. Anaiak galdetu zion ¿ea nola zuen izena? eta lena, gure euskaldunak, zer esan nai zion aditzen etzuenarena egin zuen; baño unaiak gogor artu-ta efira eraman nai zuela ikustean, euskaldunak esan zion izen-abizenetako: bera zala Prantzisko Okerdabil, alako eritakoa. Unaia pozik joan zan, baño bai gure euskalduna ere; alako izenik ez bai zuen.

Gezuñaren larritasuna

Gezuña berez beti gauza gaiztoa da. Baño norbaiti egiten dion kalteaz ezpa-da ezta pekatu larria. Kalte aundia egingo ba-litzaio or-



Portziunkula'ko Andre Maria ren aldare nagusia.

dea inñori, *kalte*zko gezu'raz, orduen pekatu aundia izango litzeke. Izugarizko gezur kaltegaría asmatu zuten Susana galtzeko Israel'go bi epailari edo juez zafak. (Dan. c. XIII).

Gezur itxura

Naiz gezu'ra esatea beñere ez zilegi izan, ez gaude bearturik, dakigun egi guzia esatea ere, naiz jakin. Gezur-itxura egitea zenbait aldiz zilegi da, ta beste zenbait aldiz bea'ezkoa ere bai.

Gezur-itxura egiten du edo gezur-itxuran erantzuten du, itzez adierazten duenean, buruan daukana, ez baño beste bat. Esaten danaz edo itzezin duanaz, ezpa-liteke inñolaz, uste izan, bere esanak beste zerbait adierazi nai lezakela, gezufa izango litzeke ori; baño beste aldera artu ba-liteke, gezur-itxura izango litzeke; ta au gauza zilegia da.

Ixilik idukiko degula itz emanik, zerbait ixkutuko agertu zaigunean; artaz galdetzen ba-zaigu ¿bai al dakigun? *Ezet* esan dezakegu. Jakina ori erantzuten duanak, esan nai duala, ari esateko eztakila.

Ordañik ez duanari, askotan erantzuten zaio, eskatzen duanik ez degula; nai da esan *ari emateko*.

Onelako bat egin zuan Kantorberi'ar Tomas deunak. Enrique II-gaŕenaren guda-mutil edo soldaduak bera lotzeko agindurik zijoaŕen. Ori ikasirik, santua zirpil zaŕez jantzi zan eta zaldi gañean jaŕirik, bidera atara zitzaŕen. Upatu zuteneko galdetu zioten soldaduak: zu al zera Arzobispoa? Eta santuak paŕari eman zion eta erantzun zien: zer? arzobisporen baten itxura al dauket nik? Lotsak arturik, beren bidean joan ziran soldaduak, eta santua ere bai agudo aski, bere burua izkutatzera.

Gezuŕaren zakarkeria

Gizonaren ezaguera okertzen du gezurtiak. Ezaguera, Jaungoikoak emandako argitasun aundia degu. Baño gezurtiak argitasunaz iluntasuna jartzen du; gezufaz egia iluntzen du.

Argatik gure buruko argitasun onen emale, Jaungoikoa, mintzen du, gezufa esaten duenak. Buruko argitasuna ta itza alkafen onerako Jaungoikoak emanak, alkafen kalterako biurtzen ditu gezufak.

Argatixe gezurtia, gizon gaizki ikusia da. Gezuŕa lotsagaŕi da beti gizonaren ezpañetan.

Deabrua asieratik gezurtia izan da; Jaungoikoak beŕiz eztu gezufik; ezin izan ere, bera da ta Egiata egiaren itufi garbia. Argatik kristauak egi-zaleak izan bear degu. Gezuŕa goŕotatu etsaŕaren gauza dalako.

Gezurtiari etzaio siñesten egia dionean ere. Bere pekatuaren zigorkada berekin du, gezufa esaten duela inñork ezagutu orduko.

Otsoa! otsoa! oyu egiten zuan artzai batek bein mendian. Inguŕuetan bizi ziran artzai guziak bildu ziran aŕen kaŕaxietara. Aiek itozeko zorian lasterka urbildu ziraneko, gure artzaia algaraz jaŕi zan.

Uŕengo egun batean egiaz otsoa etofi-ta ardiak ondatzen asi zitzaionean, asi zan beŕiz oyuka: Otsoa! Otsoa!... Baño inñor ez joan ari laguntzera.

Kristauaren ezpañak adierazi dezatela egizko itzaz, noren aurgeran.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.

BERTSO GAXOAK..!

Udazkeneko aize zakafak
zugaitz-ostoaak, -ori ta igafak-,
 luferatzen ditunean,
naigabe baten arantz zofotza,
beazunezko tanto mingotza
 nabaitzen det biotzean.

Of eta emen, ai! banatuak
dabiltzan nere bertso gaxoak,
 laister eroiko ote-dira,
osto ori ta igar oien antzera
eriotzaren zulo-leizera
 ai! ta ilobiko ilundira?

Bidezkariak lore zimela
artu ta gorde oi-dun bezela
 oroigaritzat bidean,
ez ote ditu nere bertsoak,
 biotz - bideko lore gaxoak -,
 inork gordetzen etxean?

Bertso gaxoak! egun-sentian
jaio ta laister afats-aldian
 ilko diran loretxoak..!
Bertso gaxoak! ustekabean
koberik gabe t'elur-gañean
 jaio diraden usoak..!

Argi-unetan nere gogoak
sortu zinduzten ne semetxoak,
 iatozte danok nigana!:
irten zinazten etxe onetan
ba-dago oraindik, bazter oietan
 ez dagon muiñ ta laztana.

Bizi nerekin nere kolkoan,
amets alaien kabi beroan,
 elufa ari dan artean...
Nork esan, zuek egunen baten,
piztuko befiz ote ez zeraten
 biotza au iltzen danean?

Nere ametsen argi-dirdira
diran bertsuok, ilko ba'lira
 danok batean nerekin.
ene biotza, ez du ajola...
bertso befiei bizitz-odola
 ematen, orain lez, ekin.


Zure bafengo poz-naigabeak,
bufukak, naiak, amets ta usteak
 befiz irauli bertsotan...
iGure atsegin ta poz bizia,
gure bafendik seme befia
 jaio ta arturik besotan!

Orixo dira nere bertsoak;
nere bafengo seme gaxoak,
 nere biotzan zatiak;
Zeru-bidean doan biotzak
diozkan otoitz, bufuka-aiotsak,
 negar, asmo t'eskariak.

Artu ta gorde, adiskidea,
bidezkariak bide-lorea
 gorde oi-duan bezela:
agian zure biotz-bafuan
mardulduko da, gaur zure eskuan
 daukazun sorta zimela.


Jauregi' ta' L.





“Agur Maria”

Monfortko Griñon Dren. itzak.



MARIAREN seme-alaba egiazkoak, «Agur Mariaren» maitale zintzoak izan bear dira. Eztute kristau askok ezagutzen, otoitz onen edertasuna, ala eta indafa.

Saindu askoei: gure Kapistranotar Juani, Domingo Dri. eta beste zenbatzuei, agertu ta erakutsi izandu zien au argiro Andre² Mariak berak. Ofengatik Saindu oyek asko idatzi digute otoitz onen bidez iritsitako esker eta mesedetaz eta beraz egindako mirariaz. Berak erakusten digute gañera otoi ori dela zeruko bidea, beraz Zeruko Jauna etofi zan bezala.

Mariak berak esan zion bein Alano Doatsuari: «Dau dela denak jakinaren gañean, «Agur Maria» esateko gorik ez beñere izatea, eta bera deustakotaz artzea, señaile txafa dela.» Egia da: Eliz Ama Santarengandik ufun bizi oi diranak pafa ta ifi egiten diote Agur Mariari, eta, are geyago. afoarioari; diotela, emakume ergel eta monjaen gauza dela.

Baño Saindurik aundienak, beti agoan zeramaten otoitz au; eskutan befiz, afoarioa. Eta ala dio Griñon Monfortek: Norbaitek, Andre Maria maite dun ala eztako ezagungafitzat dauket, bere afoarioaren maitasuna gutietsitzea.

Ikasi (dio), zerurako Jaungoikoak berezirik zaudetenak: «Aita guria-
ren» ondotik, «Agur Maria» da otoitzik edefena eta beafena; Aingeruak, Jak. erakutsi ta, Andre Mariari diosala emateko esan zion otoitza baita. Bear den bezala agur ori Mariari egiten badiozue, afen biotza, oro zereganatuko duzeu.

«Agur Maria» ongi esana, Santuek diotenez, da deabruaren etsayik

bizkofena, animaren edergarria, aingeruen poza, anima berexien soñu gozoa, Mariaren atsegiña, Irukoitz Santuaren aintza.

Eman bada egunero afosarioa etxean, etxekoandre euskaldunak; eta egin au, famili guzia bildurik; eman nerabeak erantzun dezaketen eran.

Eta, ala egiten baduzue, azkeneko orduan ezagutuko duzue Andre Mariak zeñen ontzat artzen dituan ainbeste aldiz esandako itz ayek: «orain eta eriotzeko orduan.»

A. I. M. A.



Andre Maria'ren zeruetara jasotzea.



Jesus'en Biotzari

*****♦♦♦♦♦*****

Andante *P*

Zu - gan bi - zi nai det Zu -

pp

mf.

gan ba - fun-du - rik Ze - ru - a bai de - zu.

mf.

P ——— *rit* ———

Zu - re Bi - otz o - ri Aize - a - i - zan
Maite - ta-sungo-

p ——— *rit* ——— *pp*


go al-ba-nintz zu-re bi-ri-ke - tan sartze-ko Ta o-
se bi-zi - a Jaungoi-kozko odolez a-se - tzen Deunta-

rit — — —

do - la-ri e - rantsi - ta Biotz er - di-an bi-zi-tze-ko.
su - naren i - tu-fi - an be-ti e-gongo nin-tza - ke.

rit — — —





Txina' tik ⁽¹⁾

«Zeruko Argia»'rako

Pingliang, 1927 - V - 8.



Aguñ, Z. A.'ren Artezkari A. Agñi. ori.

urêko ogeitalaugafena ezkerro, nai dezuten gu-
zirako, emen, Pingliang'en naukazute; IZAS-
KUN A. befiz *Chengyuan*'en.

Aurtengo ZERUKO ARGIA'rik oraindik ez
degu artu ta bildur naiz, IZASKUN'ek idatzita-
ko gauza berak idatziko ote ditudan; dana dala,
aspaldi idatzi ez dizueten ezkerro, zer edo zer
zuei idaztera noa.

Tsintchow'n egin ditugun lau ilabeteak,
oso ederki igaro ditugu, gure anai doixtafen
(alemanen) artean. Ezin obetogo artu gintzaz-
keten. Bertan egon geran bitartean, gure bizitza aldaketa aundirik
gabekoa izan da; beti berdintsu. Gure meza ta otoitzak egin ondoan,
iya egun guzia txineraz ikasten. Noiz beinka, zaldiz ibiltzen ikasteko,
egurats aldiren bat egiten genduan. Nai ainbat txineraz itz egiteko,
txinañ mofoi bat gureztat bakafik genduan. Bitarte ortan iru ume ba-
tayatu ditut bat kristauarena, besteak erositakoak (dolar pare bana
gutxinaz kostatzen zaigu bakoitza, eta gero jantziak, janariak, aziera

(1) Befiz Txina'ko gure euskaldun misiolariak eskutitz eder, jakingafi au bialtzen digu-
te. Ufuti badaude ere, eztira aztutzen ez Zeruko Argiaz ezta Euskalefiáz.

Gu ere bada ezgera aztutzen gure misiolari maiteetaz. Gorputzez berezirik, gogoz ta
biotzez ordea batu-baturik gaude. Eskutitz au irakurtzean j ez ote zaie gogoratuko irakur-
leai euskaldun misiolarien alde otoitz egitea ta gañera al izan ezkerro limosnatxoen batez
laguntzea? (*Idazleak.*)

ta abaf). Gergori A'k ere beste bat batayatu du. Larunbat santuan, iru gizon ta zazpi bat emakume, batzuk zafak, batayatzen lagundu nuan.

Urte befi jayak (amabost edo egun geyagokoak izan oi dira), otsailaren bian asi ziran. Guk ere suziriko edo etxafuegoak eta beste ofelako naiko su izan genduan. Aurtengo jai ok ez dira beste urteta-koak bezin ospetsuak izan, guda dalako edo; ez da oturuntz edo ban-keririk ere izan bestetan bezela. Kafiketan danbor eta beste ofela-ke tresna soñu-zarata ugari, eta mutil koskoñak bizar galantak beren aurpegitan isatsita, iya beste gauzarik ez da izan.



Andres eta Gregorio A. A'k *Tsinchow'tik Pingliang* era ateratzekoan.

IZASKUN A eta ni moñoi batekin, Joñilaren 18'an atera giñan *Tsinchow'tik*. Bi zaldi eta *luo-xen-tze* edo litera bat ditugu biderako; gu biok zaldi eta *luoxentzen* aldizka, beste zaldia mofoyarentzat. Bide-a koñeoko beste ogei bat zamariekin batean egiten degu. Atera ta ordu bete geroxego, ibai bat gabaña aundi batzutan igaro bear degu. Zaldiak ibai erdian izutzen dira, eta lañi dabiltz gabaña-koak, zaldiai beren buruak ibaira jaurtitzen eragozteko.

Eguraldia eder, beroa; bidean, menditan, ume asko ikusten ditugu lañutsik edo erdi bilutsik. Añats apalean goibeldu da ta gaberako euri zapañada batzuk asi. *Sanyosan'en* gelditzen gera. Uñengo egu-nean ez gera emendik ateratzen ausartu. Euria ari du; bideak oso labain daude, eta bildur dira mandazayak, ifistatu eta mendiz bera, amilka, eroriko ote geran. Mendiko aize otza artu eta eramankizun

pixka bat izan beste biderik ez dago. Gaberako gure *kang* edo oyak jartzeko daukagun ormatxoko labeak piztutzen ditugu, eta ofela bero-bero lo egin dezakegu ufengo egunaren zai.

20'ganean, eguraldi edefa degu, bideak ere ondo daude. Bide zabalera ateratzen gera. Ogeitabigafenean, aran aundi, zabal, eder bat igarotzen degu. Bertan dago *Schui-luo-tchen*, efi aundi xamaña; 1.100 seindi edo famili baditu. Biztanle guziak paganoak eta maometarak dira, ez dago kristau danik. Emen bai toki edefa mixio etxe bat egiteko! Mixiolariak baluke non lan egin, bada inguru guzian ere efixka ugari daude. Gaberako gelditzen geran eñan, guk lo egiten degun gelan bertan, beste *kang* batean, opio zale batzuk ikusten ditugu opioa efetzen. Zoritxakeko opio au oso kaltegarria da bai animarentzako ta bai gorputzarentzako. Tamalez gure *Kansu* ontan opio zaleak efuz dira.

Ogeitairuan, lapur-mendietatik igaro bear degu. Añeko egunetan bakoitzak nai bezela, denak sakabanatuta joaten giñan; baño egun ontan denak baturik goaz, astirogo. *Su-djia-t'e* izeneko mendi aundi bat igarotzen degu 2.600 metro inguruko goitasunetik (3.000 metro inguru baditu). Benetan lapurñentzako mendi egokia; zume ta zuaitz xuxtuñez beterik dago. Onuntzako aldean eluñez estalirik zegoan eta bideak eñeka bat egiñik eta izotz puska galantakin. Jaungoikoari eskerak ez genduan lapurñen aurpegirik ikusi.

Ogeita laugarñean, *Pingliang*'era lenbailen eldu nai degu; ortarako *luoxentze* utzirik, beren mando bat artzen degu gure mofoarentzat, eta gu biok geren zaldiakin abiatzen gera. Onela ordu-bitarako *Pingliang*'en gera. *Louxentze* jabeendako ere on zan gure erabakia, ezpai ziran *Pingliang*'era sartzen ausartzen, bilduñez gulariak kenduko zizkiela beren mandoak (efi ontan gurdi ta zaldi mandorik geyenak kendu dituzte, gudarako; sal-eroste ta beste gauza guziak esku-gurditxoakin egiten dituzte.


Oñegatik *Pingliang* baño ogeita amar *li* bat lenago, mofoyak mandoa utzi bear izan zuan eta gañerako bidea oñez egin. Egun ontan 90 *li*'ko bidea egin genduan, (li bakoitzak 600 metro edo ditu).

IZASKUN A. emen egon da 28'grna. arte bere gauzen zai, ta gero *Chengyuan*'era joan.

Emengo nasketen beñi aundirik ezin dezaket eman, ezer gutxi dakigu zer gertatzen dan da. Boltxebistak propaganda aundia egiten dute atzeñitafñen aurka. Emen nagon bitartean izan dira efi ontan bizpau manifestazio soldadu ta ikasleenak ortarako.

Batez ere Englandar et Pantzetafñen aurka daude. Maiz agertzen omen dira karikaturak ormetan ere atzeñitar kristauen aurka. Ofelako paper zar baten argazkia bialtzen dizuet, nai badezute, aldizkingian

argitaldu dezazuten, baña bildur naiz txiki ta aulegi izango ote dan ortarako.



Txina'ko Boltxebistak kristauen kaltez egindako itxura.

ren ustez europatafen adixkide danaren ezpata azpiratzeko.

Inglatera ta Ipaí-Amerika'ko konsulak ere idatzi omen die beren lufaldetako mixiolariei *Shanghai* aldera itzultzeko. Dana dala, efi ontako protestanteen *artzaya* aruntz joan da.


Oraindañokoan gu emen pakean gaude. Gerogokoaren beñi Jaun-goikoak bakafik daki; «egin bedi bere naia zeruan bezela lufean ere.» Zuek otoitz egizue, naiz pakean, naiz bestela, mixiolari bateri dagokion bezelakoak izan gaitezen.

P. ANDRES O. M. Cap.

Miss. Ap.

P. D.—Sendakiñak Tsinchowtik atera giñanean, oroigaitzat ago-filarmoni-katxo bat eman zidan. Iñioiz ezpadet jo ere, berealaxe ikasi nuan jotzen «Sacris solemnibus», «Uso zuria», «Baratzako pikuak» eta beste zer edo zer. Bide guzian jo ta jo ibili nintzan, batez ere ume koskofen bat ikusten nuanean, eta Kueba-etxe ondotik igarotzen giñanean. Ikustekoa zan, nola poliki beren kueba atetara nola ateratzen ziran, nere musika arigafia entzutera. Oñelako biziiza estua daramaten gizakiai nolabait ere beren biotzetara gozagafi pixka bat eman bear.





OSASUNA

«Etena» (Hernia)



RAIN ainbat etendunik ba ote zen leen?

Jenden artean, etenaren berri guti zabilen leen; orduan, nik uste, etendunek bertze iñori bere gaitza salatu gabe, bizi ziren.

Orai, aldiz, gaitza ori buruz ageriago gabil-tza: bati, etenaren operazioa egin diotela; ber-tze bati, etena gaiztatu, estutu edo biurtu zaio-la eta laster operatu bear izan dutela.

Leen, gordetzeko gaitza bat bezala ginaukan eta orain befiz, ezdaukagu ofenbertze itzalpean idukitzeko gai.

Orgatik, esan nai dizu et, gaitza ori zerika den, zer galbidetan barna ibiliazten gaituen eta nola sendatu daiteken.

Etendu edo ufatu: gauza bera adiarazi nai dugu.

Sabel zolako bi aldetan, lafupetik baditugu zulo txiki batzu; andik zain batzu, ateratzen dire sabel-barnetik; zulo oiek ez dira berdin andi, edo ber-din txiki, notin edo persona guzietan. Batzuen baitan estu, bertzeetan zabal; orgatik, batzu etenduntzeko gaiago bertze batzu baño.

Langile andiago edo lan bortizagoetan dabilena, geiago denez geroz aisago etenduntzen da.

Aurtzaroan edo sortu befian efazago baizik ez da, etenduntzeko, bere-ziki mutikoetan: aldika, zulo oriek andiago edo zabalago gelditzen dire, eta orgatik gune orietarik efazago zerbeit ufatzea, poliki-poliki edo bat batean, barneko zerbeitek andik bide egiteko eta lafupean agertzeko.

Etendunek anditsu barnean duzketenen efaietarik, maizenik este mea, este lodia edo sabel-sare mutur bat, izaten oi dute.

Maizenik agertzen diren etenak bi motakoak dire: bat, sabel-zola erditik urbil, bi aldetan, eskuñ-ezker.

Bertzea befiz, inter-ondoko barne aldean; emakumen artean geienik agertzen dena. Bertzea befiz geiago gizonkietan.

Barneko efayak, esteak bereziki, biziki minbera dire eta estutuez geroz, biurtuez geroz, guti aski, min emateko eta erianditzeko edo gaiztatzeko.

Zulo tipia denez geroz eta esteak eta sabel-sarea leunak nondik nai sartzeko; indafaldi bat, eztulaldi bat aski da afontean ateratzen den baño geiago ateratzeko; gero nekez atzera befiz sartzeko eta geroago neketanago.

Ezin sabel barnera sartze ofi, esaten oi diogu, etenaren biurtzea (extrangular). Ala ote dagon ezagutzeko, ezagupide berberak ditugu guzientzat.

Anditsua, afontean geienean baño andiago, gogorago eta minberago.

Sabel barnetik min andi, oñaze; alditzartu artio batzutan: goragale, goiti-gale, oka, eta beratik befiz ezin aize bat ere atera.

Ofela jari denari deusik ez eman, ez edarik ere: sendakina deitu eta berak ikusiko du, poliki ukituz, sartuazi dezaken sabel barnera.

Ezin sartuazi badu, bereala, lenbailen operatu bear da; eñai minbera eta leku estuan biurtua dagolakoz, ordu gutitako estutasuna aski da, galtzeko edo kangrenatzeko. Biurtze ori ez dadin gerta bide oberena da etendun guziak, zaafak eta gazteak operatzea.

Oraiko aldi untan geienak operatzen dituzte estualdi-biuri ortarik begiratzeko; beti, gaitz-andi delakoz, bere arat-unata guzia, bizpairur egunez egiten du. Leenbaileen operatu eta iltzeko afisko gutiago.

Orgatik, etenak operatzen dituzte; operazioa bai da etena sendatzeko bide bakarra. Badaiteke entzunik zaudela, etenak sendatzen dituztela ugala batzu eramanez. Ori ez da bakan baizik egia; aurtzaroan kontuz ugala eramanez eta ekeri begia idukiz, hadaiteke, sendatuz bezala, utsguneak bete eta zuloak tipitu.

Baño andituz geroz, gizonduez geroz, ugalekin ez da sendatzerik.

Jakiña; ugala neufian eta bear bezala eramanez, etena biurtzetik begiratu dezakela; baño ori beti kontuz ibili ondoan. Baño, ugala lasatzen dire, ufutzen dire, eta orduan ez dute bear bezala biurtzetik begiratzen.

Gazte delarik bat, bere bizi guzirako ugal sendo batekin bizi beara, ez da goxo, eta langile batentzat ezin ditekeana.

Ez da bertze biderik, operazioa baizik. Nai duenak nai duena esan beza, etena sendatzeko ez da bide bat baizik, operazioa: ori ongi egifiaz geroz, 8-10 egunen buruko, sendaturik, zauria zornatzen ezpada.

Zaartzaroan eta galbide andiago dutelakoz orduan ere operatu bear, naiz afisko andiago duten operazio guziak zaafetan.

Adinbateratuez geroz neketsuago bai da bear bezala ugala eramateko eta ein onean idukitzeko; orduan eta beafago operatu.

Lafeko.

AZIERA

Ama, maitasuna ta biotza da.

Landareak eguzkiaren beara duten bezela, umeak ere ongi azitzeko ama buru argidunaren, ama biotzberadunaren beara daukala esana dago.

«Eguzkiaren printzak, nonaitik begiratzten diozutelarik, dirdirtasuna dariote; eguzkiak mundu zabalera beroa banatzen du eta bero arekin baita argia ere ilunpia garaituaz.

Lufari befiz ustelduak zeuden azietatik landare eder-emaleak eragiñazitzen dizkio. Ofegatik Igarleak (Profetak) zion: «Eguzkia atera dan ezkerroz, landare edefak sortu zaitetzte: zelai-soroek ezetasunez jantzi: zugatzak emaitzak ugari eman».

Eguzkiak landareari bezela amak bere umeari azitzen laguntzen dio.

Afosak eguzkiaren beroa somatu ta ostoak zabaltzen ditu. Alaxen ume-txoaren ezagumena amaren maitasunaren beroa somatu ta idekitzen da.

Erakusten dizkion gauzak, amak eragiñazten dizkio're xamur-ongi esaten ta erakusten dakiyelako.

Amaren maitetasuna umearen biyotz muñeraño sartzen da ;eta semetxoaren biyotzak amaren maitasuna loreak eguzkiaren printza bezela artzen du.

Jaunak umetxoaren biyotzian erein ditun onbideen (birtuteen) azietatik amaren maitasunak sortuazitzen ditu landare eder-emaleak.

Ofegatik ordea zera, ama zerana, *maitasuna*; ofetxegatik zera *biyotza*: umetxoari gauzak maitasunarekin erakusteko: umetxoaren biyotza egiteko. Maitetasuna umearen biotzean pistutzeko maitasuna bear da izan.

Maitetasun ori, zu zera Ama. Zure printz eder-dirdirdunek seme-alabatxoek ikustia Jaunak naidu... zure printzak umetxoa berotzia... azitzia..

Oyartzuna. O. M. Cap.

AUREN TXOKOA

Bazi bijuan gure Karmentxo eskola baño lenago zegon elofi txurizko esiondotik, begiak zabal-zabalik...

Zer ameyts ote zerabilen bere buruan?

Bertantxe zegoan *eskola*.

—«Nora zuaz, maitea» esan zion ikusi zuan bere amaren adiskide batek.

—Eskolara, andrea.

—Zer egiten dezu eskolan?

—Karmentxok zer erantzun oldozten edo pentsatzen egon ondoan, andreari esan zion: *Andik ateratzeko orduaren zai egon*.

Antonio Santuaren bitartez eskariak ta eskerak.

Deba'tik. Sei laurleko Antonio Santua'ren debotua izan zan garbitokiko arima baten alde meza emateko, santu onen bitartez iritxi detan eskar batengatik aginduak.

Iruga'endar bat.

* * *

Ilabete onen amairuga'en egunean meza bat emango da «Zeruko Argiaren» irakurle, zabaltzale ta ongile guzien alde Antonio Santuaren aldrean.

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan, Iruña'ko Kaputxinotan.